

A.T.V.
3241



Txiki

YMEZVARTZ OLERKIAK

LIZARDI'TAR XABIER

EVS KALTZALEAK



M-10490

R-



A.T.V.
3281

UMEZURTZ OLERKIAK

AGIRE'TAR YOSEBA MIRENA

«LIZARDI'TAR XABIER»



1934

«EUSKALTZALEAK»

DONOSTIA



UMESURU & OLERKIAK

A SURAT AL-AMR & WITELIA

AL-AMR & WITELIA



1988

UMESURU & OLERKIAK

AL-AMR & WITELIA

ITZ-AUREA

Ez da lan makurá «Lizardi» zanaren olerki sorta-txoari izen-burua ipintzea. Biotz - begietatik irteten zitzaizkion bertsoak ain egoki izendatzen bai-zituan. Aiei zegokien idazburu yaioa ezari bearak urduritsu narabilkin.

Gure idazle gorengoena, Axular ospetsua, ordea, bat-batean laguntzaile zitzaidan. Onetxek, bere «Gero» deritzaion liburuko, Etxauz jaun, Turs'ko apezpi-kuari zuzendutako «Gomendiozko Kartan» zion: «Aita prestu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den semea emazurtza (umezurtza), anhitz lekutan da da bere aitaren amoreagatik, ongi etoñia eta arai-ki eñezibitua. Liburu au da emazurtza. Posthumus. Aita hilez gero sortua. Baina zu bezelako aitaren semea, emazurtz izanagatik ere, ezin dateke gaizki. Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitza.»

Axular'ek zesana, guk ere orain esan genezake. «Lizardi» gurea ñla da. Baiña olerkari onen prestuta-sunagatik irudimenez sortuak zitun bertso oiek ongi etoñiak bitez. Aitaren maitetasunagatik, seme berezi zitzaizkion oietxek ere, maitagarí zaizkigu. Aita gabe, umezurtz dira irakurtzera zoazen olerki auek; ume-

zurtz, gurasoak il ziralako; umezurtz, il ondoren argitaratuak diralako:

«Lizardi'k» iritxi zuan izena beste ainbat gutxik bereganatu dute oraindaiño. Berak sortutako olerki oiek, semeei aitaren ondorengotasuna bezela, aren itzal berezi eta agurgariak estaltzen ditu. «Lizardi» berbera bezin nagusi ditugu guretzat umezurtz olerki auek. Ari egingo genion aiera oiei ere egiten diegu; alako aitaren seme izateak baliatzen baidituzte.

Ongi etorriak bitez, ba-da, umezurtz olerkiak. Aita bezin adizkide bertso oiek bezaizkigu; aita ainbat maite semetxo auek ere.

Olerki soilak

Amalau olerki bildu ditugu gogo-lorepil onetan. Batzuek, gutxi, gure Yakintza'n «Lizardi» berak aizen bizitz aldean argitaratu arazitakoak; geienak, beñiz, olerkariaren paperetan, belardian garo naroaaren azpian basaka loreak apalki eskutatuta egoten diran eran gordeak zeudenak.

Guziak dakarzkigu argitara. «Lizardi»'ren azken amets lore oiek ere eguzkiak yotakoan beren yantzi apainaren edertasuna erakutsi eta aizeak eragindakoan beren usai gozoaz euskeldunen bekokiak igurtzi eta birrikak kutsu bizigariz ase ditzaten.

Amalau olerki oetatik lau, olerki soilak ditugu. Alegia, besterekin zer ikusirik ez dutenak, berez olerki osoak direnak, lili bakanak zelaiean ikus genezazken eran. Beste guziak beñiz elburu bakañerako sor-

tu ziranak, gorputz bateko zatiak bezela; ariaz lorearen zortanak lotu oi diran bezela sorta egiteko.

Olerki soilak, auexek dira: « Egamin », « Etxeko Kea », « Argi-egidazu » « Afats gofi ». Donostiko « Ifaitetxetik » esateko asma zuan « Egamin » au « Lizardik ». Azken-azkenetako olerkia izango degu auxe, noski. Olerki mee-ariña, ifait-otsak diran bezin arin eta meak, egamiñez ikututako ots arigariak bezela... Afitasun onek dakarkio olerkariari irudipen eta gogoaren egamiña, ezin geldi egona. Irudepenaren biuritasunak bařena kilimakatzen zion. Gogo barneko egamiñak sortuarazitako bertsoak ifait-bidez oguztekoak.

Ez dirudi etxeetako tximiniak darioten kea edertasun iturburu izan litekenik. Keak sutondoa, maia, baseñiak dakarkio irudipenera; eta bira-bira goruntz diyoanak bi bertso dotore oiek esan arazten dizka:

« Susmo niñan zeru goxoa
keok ote zen egiña »

Olerkitxo au erikoi bertsoen tankerara taiutua da. Lenengo aapaldian edozein erikoi bertsoen kutsua nabaitzen zaio:

« Aidean eder usoa
mendi-mendian, pagoa...
Etxe gaingoñiak emana
kea dun edeřagoa... »

Ale galanta egia izateko olerkariak diona, alegia usoa baiño edeřago kea....

«Etxeko kea»n efikoi bertsoen edertasuna zofozki nabaitu zuala «Lizardi»k erakusten digu. Bide ofetik yo izan ba-zigun....

«Argi egidazu», zion izartxoari olerkariak. Eran-tzunik ez, edo beintzat eskatutaka argiak etzion oler-mena bizitu bertsolariari kaxkartxoenetakoa «Argi egidazu» auxe.

«Añats gofi» degu, noski, liburutxo onetako olerki borobil eta gorenena, bai irudiz aberatsena bai goi arnasez biziena ere. Maiteak sortarazitako bertsoak dira; baiña, maitearen atsekabeak. Ez uste, ordea, asieran olerkaria goitilun agertzen ba zaigu ere, negar-bertsoak diranik. Bizitz-indařak maitearen gan-dua uřatzen duan bezela, olerkariaren izan iraunkor-tasunak bertso guzietan itxaropen sendoaren aztarna uzten du.

Maitaleen artu-emanak sort arazitako olerkia da ba «Añats gofi.» Etorkisunak maitaleetako bateri gogoa gandu eta goibeltzen dio. Nolako burutazioak ziran, ez yakin guk, olerkariak ez diolako, ipuiñaren guna-gaitik zerbaiten antza artzen badiogu ere.

Olerkari maitatiak goibeldua alaitu nai du. Ipui yaioa asmatzen ofetarako. Egunaren ařotasun ergela, gauak itotzen du. Gauak, ordea, bere eřaietatik egu-naren sortzaile oparotsu bezela zeruan izařak piztu-tzen. Izařok egun biurtuko dira gerora...

Asmaketa polita, olerki onetako beste ainbat iduri eder bezela. Ara bat :

«Amil-mugan, bekaitz zimelak artu du;
amoñuz damakio odei-sail bati su;
ta, aren argiz gaua galazi-ustean,
murgil yo du buruz sarkalde-leizean.»

Yantziz sotil bada, amets ipuiak badaramaki, ordea, «Lizardi»ren asmaketa geienak bezela alako iluntasun zerbait. Laburminak, olerkiak eta idazlan geienak irakurlearentzako lausotu egiten zizkion.

«Maitea»ren apurñoak

Onela izendatu zuan buruan zerabilkian poematxoak. Asleran ikus dezakezu poema txiki ofen aria. Egilearentzako aria bazan, ez zuretzat ez neretzat matas-mamia arkitzeko ez da naiko. Arek berezat ari ori iruntzeko egoki bazun, ez irakurlearentzako. Ez bear izaten ere poema borobildutakoan argitaratzeko. Aria bertsoak euntzen diran arteraiño eskuartean erabili oi da, ez gerora. Beraz, zer gutxirako degu ari ori.

Zerbait geiagorako argitaratzen ditugun amar olerkitxoak, ez, ordea, poemaren guna osotzeko. Tamalgafia zatitxo oiek eta ez poema osoa «Lizardi»ren paper artean arkitu izatea.

Bertso oien bidez dakigu poemakoak nortzuk diran. «Gazte» lenen, olerkariak bere buruari yañitako ize-nordea noski. Agiñe'tar Yoseba Mirena olerkari eta idazle bezela «Lizardi'tar Xabier» zitzaigun; Maitearen apurñoa» poemako buru bezela, «Gazte». Onen osaba-amonak, Liorko, Onki eta Onuzki adizkideak eta

«Maitale beñiak» nortzuk diran bereiztea ez litzake zala. Oñelako lautxoak ordea, bitez gerorako, Garai egokiak berea dakarkinerako.

Ez deritzaigu amar olerkitxo oietzaz, yoskerik gabe banaka-banaka azterturik, «Lizardi» zanari olerkari bezela zer aundirik erantsi lezaiotekenik. Edertasun yaiogorik darioten bertso-mordoak ba-ditu amaika «Biotz-begietan».

¿Zertarako argiratu, bada, oraingoak?-diokezu.

Seme oiek aitari itxuskeririk ez diote egingo beintzat. «Lizardi» zanari dagokioten olerkiak dira guztiak. Oraingoak eta lengoak era batera taiutuak dira. Orok daramate etxeko antza; bai edertasunez, bai euskera gñañez. Ba-liteke lenen yaiotakoetan seme aratz eta sotilagorik aurkitzea; aizken sortuetan elbariturik ez dago baiño.

Aur guztiak ezagutu araziaz euskeltzaleak obeki aita nor zan yakin genezake. Batez ere, aizken sortu oiek «Gazte»ren barunbeak zofozkiroago argitzen dizkigute. «Lizardi»ren gaztaroa eguzkira dakarkigute.

Gaztetako asmo eta izakera, aide eta adizkideak, yolasak eta ikasbideak eta maitemindu zaneko asiera, batak bestea korapilatuaz bertsoetik aapaldira, aapalditik olerkira «Maiteñoaren apurñoa»n betirako jakin arazi zizkigun.

«Biotz begietan»goak atarira begiratzen dute, ez guztiak, bai yaioenetakoak ordea; «Maiteñoaren apurñoa»koak barunera so-egiten dute. «Gazte» berari dagokioten gai utsak darabilzki «Lizardi»k poemako

neurtitzetan; len argitaratutakoetan olerkariarekin ikuturik ez zuten gaiak. Onelakoxeak dira «Urtegiroak ene begian», «Asaba zañen baratza» «Gure mintzo» eta beste ainbat.

Besterik ditugu oraingoak baiña. «Lizardi»ren iza-kerazatitxoak zaizkigu «Ama gau beltxeran» ta «Gazteren esnatzea»; adizkide bizikera dariote «Liorko» «Onkiren bila» ta «Onuzki erotu»; etxekoi oroitza dakarkigu «Amona»k; maitemin len-ikutua «Maitale beñiak»...

Au degu, nere ustez, «Maiteñoaren apurñoa»ko olerkirik bikaiñena, goi-argi indañez biziena, biotz ikutuz xamuñena. Olermena «Lizardi»ri ementxe arotu zitzaion. «Gora-dei»an bere «ipuia tajuz yalkitzeko» eskatzen zuan laguntza,

«Mutiletako poza
ta ajolakabea;
amets ezta dela
lenen-maitatzea»

'ren gaiak kantatzeko, aitatutako olerki oñetan nabar-bendu zitzaion.

.....

«Euskeltzaleak» i zigun maitasuna «Lizardi»ri, bere idazlan guziak argitaraturik, nolabait ordaindu nai izan diogu gereaz azalduaz. Arestian «Itz-lauz»en amaikatxo idazki eder bildu dizkiogu. Olerki aizken ondañak oraingoxe liburutxo onetan, beñiz.

«Lizardi» nor, nolakoa eta noraiñokoa genduan ezagun arazteagatik egin ditugu egindakoak. Laguntzaile zintzoa aurkitu zaigu ofetarako. «Lizardi»ren aizken aldeko adizkide miñenetakoa; Markiegi'tar Yoseba yauna.

Olerki oiek argitaratzea bere gain artu du Zarauz'ko Udalak. Sorteriak ere eskeñi dio bere laguntza «Lizardi»ren gorazateari.

AITZOL'DAR J.

OLERKIAK

EGAMIN

Yaunarenean nago
zentzuak ezin bil,
Elizaren sabela
bakar dago ta ixil.
Otoitzerako giro,
baiña ni txoratil...
Leiotik, ari xêa;
(i) egun beña aril.

Ari xêa begian
ta idurimenean
ari baitut xirika
kilimagiñean,
bufuka bat sortu zait
eztia, barnean:
egamin ta geldimin
naiz, aldi berean.

—
Badakusat iduriz,
gelan lekaidea.
Aren eginbeña,
epez ikastea.
Gorputzean osasun,
animan pakea,

lurmiñak ditu utziak,
Yainkoz da betea.

Egan leio-auřetik,
txintaka txoria;
aren uřen, ausardiz,
maiera iguzkia...
Mundutikan ez ba'lu
bete geznaria,
uste dezake dela
(i) atsegintokia.

Ari xêa beřiro
begitaratu zait;
geldimindua nadin
beldur duzu nonbait;
badakartzit gogora
ikuskitzun zenbait,
elizaz nondik nora
(i) eragingo gogait.

—
Biotzetik datorkit
orain oiartzuna :
» Eliz-leio ñabařak
» iragaz-eguna,
» atarian zakařa,
» barneon biguna;
» emen lore goři, ta
» kanpoan asuna...! »

Egun beñi makurak
ezin etsi baitu
argi-aria ugolde,
biurtua dizu.
Erauntsiak eraso-
ta galdua nazu:
bizirot zait ernetu
gogoan Urkizu.

Etxeak mendiaren
bixkar-bixkaréan,
usoak dirudite
teñlatu-ertzean,
uruma ta yolasa
(i) elkarén artean,
soin zuriak nabari
zeru gardenean !

—

Egamiñak éretzen
«ematen» dut egin :
otoi labur bat, eta
atarira nadin.
Zer burubide duk au,
txoro (i) egonezin
Pake gozoa utzita,
nora duk egamin ?...

ETXEKO KÊA

Aidean, eder usoa,
mendi-mendian, pagoa...
Etxe gaingoñiak emana
kêa dun edeñagoa.

Basaluéz bidalari
kê urdiña ba-dut nabari,
ai nire poza!, uraxe baita
gizalur-ezagungari.

Aurki, aldean, oiñoa :
maldan etziñik, soroa :
etxe zabal teilagoña,
aúfean intxaúñondoa...

An dun bero, ta an dun bizi...
An, aur-yolasen kañaxi...
Gauetz, sutondora bilduta,
eguneko lanen sari...

Nireganako, maiteño :
aurki, bata bestereño :
amets!, iñulañeko izaña
zeruan piztu dediño...

Eztai-egunez, maiean
indi-oiloak sailean...
Ortzia bezain urdin, kêa
teilatutik, biurëan...

Leiotik, ogei baseñi,
mendiaren apaingari;
zenbait zabal ditun ageri;
zenbait, erdika nabari.

Batak besteak adiña
kêa guziek urdiña...
Susmo niñan zeru goxoa
kêok ote zen egiña!

—

Maiteñoa zait il atzo,
aretoan gorputz dago.
Leio zabaletik, mendia;
aizeak, eguzki-giro...

Aidean, eder usoa,
mendi-mendian, pagoa...
Etxe-gaiñetan ederago
biziaren kê-mordoa.

Azti zitala belea,
erio-ondakin zalea....
Zeñaldoa dagon etxetik
ura bezain beltza... kêa!

ARGI - EGIDAZU

*Onginaiaren ondaingari apurtzat,
Markiegi'tar Yoseba jaunari.*

Argi-egidazu,
izarño dardarti,
gauaren altzoan
otz-ikara beti...

Argi-egidazu,
su-gar urutia,
beti il-naika ta iñoiz
ezin itzalia...

Egilea'z gero
zu zera zârenik;
gaudi-sabelean,
zerau sabelenik.

Betiaren begi,
Yainko-geznaria,
belardi beltzeko
loreño txuria:

Argi-egidazu,
gau orotan argi;
biotz-ixuria
nire baitan azi;

Amesmena goza
tanta bat urdiñez;
iduki nazazu
sor-gor, zure miñez...

Andregaia zana
bezain, zaitzat maite...
Argi-egidazu
bizi nadin arte !

A R A T S G O R I

Zerk goibeltzen zaitu, maitea, arátsero,
aizea ta txoriak atertuz-gero ?
Begi zabaletan zerk edatzen dizu
gandu delako ori, erdiz nigar ta izu ?

Eguna aráusi-nai asi-garaiean ;
mendietako isla zeru-bazterean
non gerezi ta non baxaran denean,
zerk atzi zakida, gaixo, bat-batean ?

Nireganuntz erne zenúan gogoa
zerk arinduz ta nork eman ez egoa
dioakit iges, ta aidean esegi
dakust, txori lilurarazia iduri ?

Beldur naiz, eneño, aráts goriotan
erio-oxkiñia dabilzun zaiñetan ;
Egun begi-uridin iltzer dagola-ta,
arengana zauden maitez ukituta....

Begira : Izkain'eruntz, txingar borobiña
noiz egingo dago uretan murgila,
ta noiz txirtxir-otsez itsaso goña
biurtuko lurunezko odei zuria....

—

(Maitagañiari, betazal-ertzetan,
oskoñiak dirdai, nonbait malko-intzetan,
ta mutilak, ipui bat asma ta dio
laztanari lèn-poza itzul ba'lekio....)

* * *

Egun begi-urdir, sortu-beñi artan,
luñaren gainetik aña zioan.
lñoren ume zanik ezpaitzekien,
il-ezintzat bere burua yo zuen.

Eguerdiz-gero, zalantza da, lañi ;
buru orañlean azkura du sañi;
atzera so, ta, ñlaunki, aldapa bêra,
Gaua dañaikio ludiaz yauntzera.

Amil-mugan, bekaitz zimelak artu du ;
amoñuz damakio odei-sail bati su ;
ta, aren argiz gaua galazi-ustean,
murgil yo du buruz sarkalde-leizean.

Gauaren aginduz, oña sua itzali.
Itz ok hota dizka Egun yoanari :
Ai, Egunño txoro !, ez ezagun ama,
Lèn uts sakonean Bakar nindukana?...

Lurtañok, ez beldur. Pake, maitaleak....
Altzoan dakartzit zorion-aleak....

Altzoan dakartzit izar ugariak,
etorkizun-egun beñien aziak....

Ta, au esanik, lerdan, ereiten asi zan
aziak iraka sail beltz gizenean....

—

Arats goña il da... Zeru-bazterean
ez gerezi dugu, ez-ta are baxaran !

* *
* *

Ipui gazigoxoak izan dik âlmen :
oña gandua ura ta nabari lurmen....
Begi zabaletan, iria nagusi :
giro-alda ain usurik ez dut ikusi !

Ai, eguzkitara, mutilak al ba'lu
auzo-soingaiñean burua atsedendu !...
Baiñan, Lotsa dauke tartean yafia,
naiz, itxuraz, ez den lagun txit lodia.

Izar uruneri begiak emanik
eztaietan biotzak ditutelarik,
elkarrenganago dituan Gauari
oña ixil-mintzoz zer dioten eskari :

Begi-beltz, oin-ilaun, ama Gau naroa,
ekarkor bekigu zure azaroa :
egun begi-urdir betoz ugariak
gure elkarmin onen gainezkagarriak !...

MAITEA'REN APURÑOAK

« M A I T E A »

P O E M A - A R I A

I

Gaua(osaba)—Gazte'ren esnatzea—Liorko—Amona—
Muno-txiki'n—Moñan (N'ren txalupa)—Getari'ra yoatea
—Gora-dei.

II

Onuzki'ren biñā—Sta. Barbara : Ondaurtz-abestia—
Izkain'eruntz : Gazte ta Onuzki—Pelota-partidua—On-
daurtz'era itxasoz : ereserkia.

III

Busti-aldiak moñan—Onuzki ta Gazte igarian —Paulino
la'ugoñian—Neskatxak gutaz e'ukitu — Osabak auzia :
zearo aienatu ta nik iges—Gazte Maitea'ri aurkeztu :
« iguzki iguzki maite.... »

IV

Gazte ta Maitea elizan—Liorko'k V. ez maite—Odol-
ki'ren iguinga'rikeriak (?)—Maitea'ri agur : malkoak—Itxa-
soan lagunak : Onuzki erotu—Ama Birjiña.

V

Irizar—abertzaletasuna — Ondaurtz ikustera mendiz :
 luñari atxiki yausiko ez banintzan—Euskera : dei—Ama :
 Mta. ta Liorko'ren artako azpikeriak—Ondaurtz'eko Ama
 Birjiñari otoi—Konpondu—Ezkondu goizean goiz, pake
 santuan.

VI

Gazte'k M. mindu iñoiz, Odolki ta Mta.'k ixuri-edena
 bide.—Maitea gaixotu—yaiobeñia il—(Ames : Maitea il—
 Gauila—ilargi—Ileta-bazkari—Praile).

VII

Ori amesa zan—Maitea osatu egin zan—Aur geiago
 izan zituzten—etxebarneko biziera : mendira, olerki egi-
 tera ; bakañik—Gero maian etxekoen lagunarte atsegiña.
 —Neguko gaua : ziriñoak Maitea'ri irakufi—Lau aur-
 txoena—Bizitza-bidea ez da zearo garatz ; ez du beti
 eguzki, besteetan bezela odeiak yartzen baitira bitarte.
 Ondaurtz, antziñako andregai artu-ez baten antzeko zait
 orain. Irizar'ekin egin ditut pakeak, an sortu baitira nere
 aur ta olerkiak. Gaztetako oroipen zañok beñitzen ditudan
 artean onâ gizon eldu. Neguak eluñez zurituko gaitu,
 baiño nere naia, aur ok beti olaxe txiki irautea litzake.

LÉNENGO YALKIA : Oporaldi asikiñak

AMA GAU BELTXERAN...

Mertxika guria
yaterakoan,
ez duk lênen-ozka
bezelakorik :
ark gozo-sabela
leárazten dik ;
ark bustitzen agoa,
gaiñezkakoan.
Berdin duk opoía :
lênean, onen ;
agortzenago ta
mikatzagotzen.

Gazte dugu gaurko
mertxika-yabe.
Bil ezak eskuan,
egiok usai ;
ozka ta milixka,
dukeiño garai :
gaur atsegin, badukek
biar oiñaze....
Ama Gau beltzeran

geroz ernari,
ekartzen al-ditun
anitz aur argi !

Sapaiñloan zuti,
—gaurko gaugiro !—
Gogo-soiñetan duk
atsegin guri !
Kezkok yaregiña,
gaur Ondaurtz-aldi
duk asia ; gaur buka
Irizar-aro.
Yoan duk Negu beltz
ikastaro zail ;
dei'zagun nagusi,
Uda yaun orail !

Ozkarki zen gaua,
bitxiz yoria :
ziñarpil laña
ta diru xêa.
Ots-ixilek, laztan
batak bestea ;
iñunak, emaztegai
aukera argia ;
gau-oialak, zuta
beltzez, zeara
dirdariz : Yaungoikok
eio-beara.

Apoen txirulak
yoka diardu,
maitemin apalak
eragiña antzo.
Lur-axalez gora
yauzten da mintzo ;
ikusgaí da biur,
mamia ar baitu :
otsa maiztu-ala,
gezi urdiñek
ziztatua dakus
iluna Gaztek.

Gaurpean etziña,
baratza, bêan ;
aúean, uruntsu,
mendi-izkutua,
ilargiak ozta
gain-argitua ;
etxerik, begi-erne,
zenbait, tartean ;
baratzaren mugan,
toíe bat, serail,
oro beltz, zilaíez
ertzak zurikail.

Gibeletik zer den,
belaíeri
galdetu. Itsaso-otsak

ezaugaí du,
beti-bat, ordea
saí-beíitu.
Iduriz dakusagun
ez dena ageri :
ondardi luzean
ugiñek ari :
gau-oiala astin, ta
dirdaiaraziz.

*
* *

Gazte'ren opoía
zearoko opor ;
iru ilabeteko
zer ta nora-nai !
Aize baduk yare,
baduk ere elai :
eguzki-azpian ez
Gazte-beste, iñor ;
naiz osaba Garto'k
lan-lagun ustez
udakide deitu,
urtero oi-zunez.

Legegizon baitzen
bera ; ta Gazte
artarako ari....
Oker laía,
bion gaia izanik

olerkaria !
Gazte'ren gurasoek
poza artzen dute,
yakiñik opoía
dukela yantzi
buruan xêatuz
zenbat-nai auzi.

E-tzion Gazte'ri
galbide o'rek
beldu'rik ematen,
bai-baitzekian
zerk, udân, osaba
zeramakian :
legegoaz besteko
zenbait yolasek :
txi'ripio-eizak,
txibi-a'aintzak,
yaun ka'ama'oen
atxitze gaitzak....

*
* *

Txi'ripio-eiza....
Mendilauetan
ondar-munoz muno
makurka, geldi,
eskuan su-izki'lu,
lepoa izerdi :
danba, alako batean,

danbaaa..., biñitan ;
kêpean iguzki;
ta ura soiltzean,
an doaz txori ok
onik, aidean!...

Txalupa geldian
txibi-añaintza:
urpean, deigañi,
bitxizko korain....
Ez al duk atxitu
apaltzeko lain,
ta, ai, ura goralañi
ta barne dantza!...
Baiña, itsaso ba-da
zearo bare,
osatzen al diat
bazkaria are.

Kañamañoena....
Au ere ez bigun !
Ondañean auzpez,
luze-luze sar
arkaizpe doi-doian
beso ta atzapar.
An zegok kañamaño ;
atzi dezagun ;
ez agiñez auñez,

sabeletik bai,
beatzik ondatu
ez ba-dugu nai.

Orelatsu Gazte'k,
aboan iri,
du lēna beritzen
egunik-egun.
Noizik-bein, osaba
baduke lagun
aurtengoan ; ez, baiña,
len bezain sañi.
Surpean ilauna
dan-ezkerotik,
gizonak burua
yare bear dik !

*
* *

Mendian, oilaiek
elkari « gabon ».
Loak ar-baratzan
badoa, geldi,
yaun katu eldekoi,
ozta nabari.
Gazte'k galde (artean
goxo baitzegon) :
—Oera beartu
nai, dagoneko ?

Itzez ez, egitez
erantzupena :
bizpairu etxeek
betazala, « klixka »,
eratxi ditek.
Asistar-yoaleak,
gaberdi-lêna :
anka aidean dula
katua geldi :
tan..., tan..., ots ozenak :
gero..., ixil aundi.

Etsi zun mutilak....
Barnera doa.
Ez pizten argirik....
(Eltxoen lotsa).
Susmo dut ote den
usu bilosa,
ta usuago dukela
nagusi loa.
Or leio zabala....
Sar bedi lapur :
osturen ez dio
zorion-apur !...

—
Ama Gau beltxeran,
geroz ernari :
etorkizun-auñak,
ilun ala argi ?...

GAZTE'REN ESNATZEA

Zoridunen etxeak
Iguzkik bai-baitakizki,
Gazte'ren leioz barne
besoa sartuki,
begiak uki...
Gordeka, ala datortzu
adiskide yostalari.

Etxetik urbilean,
bizpairu akazi luze
zeuden. Bertan, txoriek,
goizero, batzaře.
Naiz yai naiz aste,
auzoko belarıak
alpeřean ez daudeke.

Batak begiak uki,
bestetzuek, entzukia,
esnarazpide oro
du Gazte'k ukia.
Ez da yaikia.
Ametsik gozoena,
erdi-lotan yardukia.

Begiek, uré gar-uts;
entzumenak, ezti goñi;
amesmenak sor dizu
zelai zoragafi.
Or duzu yañi
mutiā: babesgai du
sagarondo lore beñi.

Baiñan, izana itxaro
ametsik ez bezelako!
Nagiak bota ditu;
esna duzu oro.
Zuti da aguro.
Goien, pañez igesi
ziyoan Iguzki zoro.

Goizaldeak irira
oi-duan ots gozo ñabar
aizeñoak Gazte'ren
belañira dakar:
izketa-marmar,
zaunka ta asto-añantza,
sardin-saltzañle deadar...

Esne-marmitek, *tinka*;
basagurdia, *kiñi*-ka!
leio batetik, pañe;
kaletik, zirika;

ordu-erdika,
yoaleak, laburki,
Yaunaren opa aldaírika...

Kalerik ez ageri,
baratza dago tarteka;
beso gíñez, yotzen
al duzu, aírika;
Gazte'z auíreka,
arako toíre zaía,
zuti, baratza non buka.

Ugarte deritzanez
itxas-erdiko legoía,
etxarte zeritzaken
ikusgai-aloía.
Lur emankoía;
baratza-sail itxia;
pake-baíuti yatoía.

Gizalur-ezaugaíri,
Kea dugun mütíl alai!
Etxetik-etxe dabil,
gain goíiez garai.
Beti goranai,
kide goitar beárez
duzu biurtzen ortzigai.

LIORKO

Bat-batean, txistu-
ots ezaguna,
naiz igaz urénik
Gazte'k entzuna.
—Kaixo, laguna!
Bizkor, beraz?...—Yaufiii
au duk eguna!

Liorko zun Gazte'k
izketakide,
kañaxi gaziak
adiraz-bide :
eskuz biltzeke,
mintzoak uruna
nekez dabilke.

An ageri duzu
leiarri baten,
okotz-masailetan
belar-ebaten....
(Apaña yaten,
obeto dirudit
ari ote den....)

Adiñak berekin
dakar legea :
bizaía labur, ta
gizon-ustea
luze-luzea.
Muño oiek ebaten
baduk nekea.

Gazte'ren kolkoko
adiskidea.
Elkar-gabe dute
negu : udatea,
elkar-arte.
Maiz gogora dute
batak bestea.

Eguntsu beretan
ikastaldiak
buka-ta, ditugu
Ondaurtz atziak.
Yaioteíak
asetzen dizkie
biotz-begiak.

Izketa luzerik,
nabarmenean,
euskaldunak ez du
oi, maizenean.

Oiek, maiean
elkaí begira :
bizpairu, urtean.

Argatik, arira
usu yo dute,
alkaí galdetuz
« non » ta « noiz arte »
—Berealaxe !
—Muno-Txiki'n nai duk ?
—Nai ? Nik ala uste !

Bekaitzez Iguzkik
begira die ;
—Zuen yolas-lagun
pozik nentorke....
Pozik, alare,
zeregin estu au
ez ba'nu lege !...

A M O N A

—Iguzki, Iguzki maite,
lilura zoragaía,
gaurko goizalde diat,
barteko gauaz nâste,
opoáldi-lênenkia !
Argi zak, gaur bezala,
argi zak nire bizia;
barne-egaíi bat diat,
argi zadak ituía.

.....

Otoi au egin arte
gezur-yainko goriari,
norbait dizu sumatu,
xê ta bixkoíik, bêan,
ufats usuz ibiltari.
Amona du. Gaixoak
eskuan dakar yanari,
artirin-ofea ta
artale gaiñez-ixuri.

Andre agurgaíiak
amets etxekoia du min :
azâk eta tipulak,

udare, mañubiak,
arautz-oilo ta urde... « zikin ».
Yatoriz izan afen
kaletar andre-pinpirin,
eusko lafe-zumoa
zaiñetan dizu berekin.

Mezetatik etori—
berri. Yantzi beltz txukuna
soiñean : manteliña
doi ken... Ala baitzien
oiloeri maitasuna !
Biloba zâfenaren
leiora begirakuna
yasoaz, itz eztez
onetsi zion eguna.

Baña, mutil, atora
duk, utsik, geñi-gaiñetik ?
Goizaldeko oxkiñia
xital dala ! Bear duk
beldura, neñiz bederik.
Ta, gosaltzeke ?... Yanak
osasuna gordetzen dik,
motel ! Ator : etzegok
gosearekin yolasik.

Gazte'k-egi dasagun-
ez du birimiña beldur;
urdail-zofoa ere,
gosariak uts-añen,
artean etzaio ximur.
Ezpal berezkoz baiña,
mutila dugu naiko zûr :
iñork laztandu nai-ta,
ez akiok egin uzkur.

Murgildu duzu, uretan,
gabe baitzegon, artean.
Amonak orea-ta
bakar goñian laga,
ta atzera dator bidean.
Oiloak tinko, baiña
biloka are, biotzean :
aien goseak, itxoin;
onenak etzezakean.

Badator bêra Gazte,
goiko sukalderi muzin.
Ezpaiñak ximurtuki
amona dabil: ez duk
aren ondoan atsegin !
—Neskame bargazta, non ?

Ta alabak, non?... Oro berdin !
Erdi-itzalita sua,
ezin esneak irakin !

An dabilizu gaixoa
zerbaiten bila su ta gar,
sutatik ezin baitu
esnerik katilura
atzapar uts goñiez ar !
Apalak irauli ta
zoko guzietan aztar :
eskuan buruntzali...,
ta aren eske... zora bear !!

MUNO-TXIKI

Non-elkara, ta noiza, are,
tiñel daduzkate :
Muno-txiki'n bil ditugu
Liorko ta Gazte ;
ondaiaz aue,
yardun gozoari bekiote.

Ikus-beñikoak labur,
bizkañekoz naste ;
bai-baita an zerk begimindu
naiz bata naiz beste....
Ixil da Gazte ;
laguna, ixil ; ixil-edereste !...

Ederberak xerbeldurik,
ardoa bai'luten,
luze-itotako Ondaurtz-miñak
eztanda zegien....
Nork-bere barnen
nabaria, mintzoz dute yazten.

Itsasoa zabal dager
leño zuriz ertza ;
zenbait bustizale goiztar
gogara dabilta.

Gazte da mintza,
aboa ainbat zabaliz biotza.

—Gogoa azten zaidak emen
yan-asez azia :
begi-zuloek ar-ala
naro duk argia :
au dik ogia
idurimenak ; au, edaria !

Begi-baxteretik iri
lagunak dagio ;
osatzaillegaia izaki,
sailai dakio
yakin-yario ;
olertiaz axolik ez dio.

—Gezak eiozko bisutsa
emen duk berezi ;
beste iñon ez ainbatean
odol-bixigari !
Tanta bat, gazi,
azal-txulo banatan dik yari.

Elkarren leian dituzu
korapilatuak,
nor baiño nor piztenago
ametsaren suak ;
aien aipuak
mordoka darite elkar-lotuak.

GORA - DEI

Ora, uste gabe, jaunak,
ipui bat asia :
antzea bezain, naski,
gaia dut uria...

Mutiletakoz poza
ta axolakabea;
amets ezta dela
lênen-maitatzea.

Nola baitan astuntzen
gerora bizia;
ta zein dugun beara
noiznai goi-argia.

Edozein lan asteko,
Yaunari biotza;
areago, txit bainaiz
artarako motza.

Yaungoiko on, euskaldunon
betiko yabea,
indazu nere ipuia
taiuz yalkitzea.

Ez bezakida abotik
itz gaiztorik eror;
ez bedi nere esanik
iñorentzat galkor.

Ta zuk, euskera eder,
mintzo zâr yoria,
barkako âl didazu
nire ausardia...

Oroitzapen maiteenen
ontzia, zere uréz
landu nai baitut... Landu,
nire esku baldañez !

BIGAREN YALKIA

ONKI'REN BIĀ

Onki'ren zoria
bestelako zan.
Uztail naiz Azaro,
ark beti du lan.
Sartu gaitean,
oin labuñez, aren
aitaren olan.

Matazak arildu,
txirikak bete...
Moxorkak aiñezka
ernal bezate;
Ai zenbat neke,
alpeñok atoña
yazteren truke.

An dabil aiñezka
ezker-eskubi.
Zuta ta zeara
lotuz elkarí,
eunduko saí
eundegi-ardatzak
bil duan ari.

Olaren buruzko
eragilea
bazter-gelan dago.
Aren nekea !
Esku betea
kaskoan: sudua
leuntzen, bestea.

.....

Aureko leioko
goi-bazterean,
armiarma ari da
egiñalean.
Noizik beiñean,
ari so-dagio
argi eskean.
ura baita eule
zar-zarénik an.

ONDAURTZ-ABESTIA

Ondaurtz ! Béan dut agiri,
neskatx polit bat iduri....
neskatx polit bat iduri....
Erdi-etziñik txairo baitago,
begi zabaletan argi,
ezpain gorietan ífi.

Ondaurtz ! Itsasoa atauré,
ondardia atari-lege....
ondardia atari-lege....
Damasko-oialki urdin yoriak
ertzeko litsean uré,

Ondaurtz ! Erdi-aíantzale.
Erdi-nekazari ere....
erdi-nekazari ere....
Ta alaz guziaz ere kaletar,
kaletar apaindu-zale,
Baseíi, itsaso ta kale.

Busti, Ondaurtz, oin ta zango.
Kulixkak ez gogarago....
kulixkak ez gogarago....

Lirain-askiak agiri ditun.
andar goñi ezea antzo,
gari elduaren margo.

Argatikan azala dun
érez batera legun....
érez batera legun....
Euskal-irukoitz ziñen yatoía !
Kaletar, lugin, arándun....

LAUGAREN YALKIA

MAITALE BÉRIAK

Eguzkiak orailen adatsa dunean,
ikus bide-dituzu, eguras-bidean,
inguma bi xurizta, lur apaindu-gaiñez
lozez-loreko ibili gozoak egiñez.

Ezin oar txoroak zerk elkaréngana
darakartzien. Baiña, nerez dakidana :
zorion uts geroak letsiken unerik
aien aldi laburak eztizu besterik.

Nork lesaieke poza laister dutenik il ?
Oinaze-eriotzak nork ain ditutela urbil ?

—

Alatsu baizebiltzen Maitea ta Gazte,
etzioten elkarí aitor « ene maite » ;
ta, alaz guziaz ere, maitezko mintzoak
betidanik zerizten biñoen aboak.

—

Beiñola, bazkalondo sargori zelarik,
uré egoki baitziren Asistaía'netik :
—Maitea, Yainko onari otoi ba'gengio
eskariak elkartzuz....—Gazte'k galde dio.

(Biotzak ala agintzen baitzion, elkañen
arteko lokariak zailago zitezzen.)

Pozik - erantzun zion Maitea'k - Goazen
Ta, masailak goñituz (zerek al-zekien !):
—Baiñan eska-bea'rik zer dugu, biona ?
Ta muti'ak, zalantzaz : —Elkar-zoriona....

« Elkar-zorion » ori etzan soindun ume,
lur kiskali lu'una bezain mamitzeke.
Zorionago zer nai anartea baiño ?
Iraun âl-ba'lezaie biziak arteiño !

Maitetasuna dator azi izkutu batez,
guziok baitaukagu barnean yaiotzez :
ez edozein eguzkik ernerazga'ia,
autuaren begiek bear dute ukia ;
ta oartzan ez gera danik ernetua
arik eta biotz dan arte loreztua.

Ur onetsia Gazte'k eskeiñi : Maitea'k
beatz zurigoñiak dardarez beteak....
Mutilaren begiak noiz itsatsi zaizka
ordun ainbat sakonki, ordun bezain tinka!

Maitari biak, beren uratsak neurturik,
sartu ta yañi dira belaunbikoturik.

Yainkoaren etxea erdi-ĩlunik dago,
aur-loa bera baiño pakez beteago.
Ateko sargoriak sarbiderik ez du :
oxkiro biguin batek batzañe dagizu.

Yauna'enean dagoan ixiltasuna,
otoitzai ego mēak ematen dizkana !...
Ixiltasun bizia, biotz-taupa duna ;
ez alegia ilēñian egoten dana.

Gazte otoi luzētan asi baiño leen,
xerbelduxe baitzegon maite-ardoañen,
iraulka zebiltzian bazter orotara
begi yakinbeañak, oroien gogara.

Etxeko sutondotik alde ibili-ondo,
oroigariz betea dakusazu oro :
Gabon-apariarena bezain gozoa
lênaren lu'una zaizu gogoan eda.

Atoz baratz-leiora ta ikus goi-zokoak....
lñara-kabion erakarki gozoak !
lênkari miñagorik ezpaitu geroak :
lñara-kabi zârok, urtero beteak,
iñoiz udabe'ien lekuko maiteak.

ONUZKI EROTU. AGUR

Adiskide kutun, lagun zorigabe,
azpildu-gabeko biotzaren yabe,
onerako zabal, edefak su bera :
atorkit, Onuzki, gaur oroimenera!

Elkar-ordaiñaren ezti berdiñaka
bein ta beñiz uka maitasunak baitik,
t'ez eskein bizitzak beazuna baizik
(ala baita mikatz sagar bat elduka);
aldegiña aiz urun, lagun biotz-bera,
adi-mugaz aruntz-erbeste itzalera.

Adiskide laztan, eun bider gaixoa
gogapenak elkar bil-ari mênõoa
beiñola zaik eten... Adi-yauregia !,
yabe dituk, geroz, gaua ta nâsia.

Irudimena uan giaía, yoria;
baiñan, ega-baldar baitabil txoria
luñera-bearka zauri doanean,

orén antzo eian ark oi, maizenean.
Odol eri batek ezetua iduri,
beltz-kusbera uan, izukoi, urduri...

* * *

Gaberik gabëen-gaupean bai'ago;
gaztetzaro-ogitik yakide ninduken
onen ongina ez baituk siñisten;
ai, nik âl-ba'nezaik, nik âl (eztiago
loak ar-basoan ilargia baiño)
ene oiu au sar biotz ileraïño


Ene oiu au sar ta biotza biztu,
ta itzal-yauregian giz-argia izetu !


Ezin âl-ba'ledi, Yaun erukiofa,
barkatu zaiozu zizukean zofa;
ta Argi-Abeñian ikus âl-nezake
lauso-eziñezko adiaren yabe;
ta âl-bezat, Yaun, otoi, besarka negaéz,
beste iñon ez ainbat negaía dan emez !



AURKIBIDEA

Itz-aurea	7
Egamin	13
Etxeko kêa	16
Argi-egidazu	18
Árats goñi	20
Maitea'ren apurñoak	23
Ama Gau beltzeran	27
Gazteren esnatzea	35
Liorko	38
Amona	41
Muno-txiki	45
Gora-dei	47
Onki'ren bila	49
Ondaurtz-abestia	51
Maitale beñiak	53
Onuzki erotu. Agur	57





SANEURIA: 2,00

A

3